

Hernanik KRONIKA

TOKIKOM 2013ko abenduaren 27a, ostirala ::: 4.596 zk. ::: www.kronika.net

PRESO ETA IHESLARIAK

Urteko azken ostirala izanik, deialdi berezia egin dute gaur preso eta iheslarien alde

Urtero bezala, herriko lau auzotatik zutabeak aterako dira, 20:00etan: Antziola, Etxeberri, Zikuñaga eta Portutik. Plazara 20:30etan iritsiko dira. Ondoren, zerbait berezia egingo dute.

OSTIRALERO bezala, kalera aterako dira hainbat herritar preso eta iheslariak gogoan, euren eskubideak aldarrikatuzera. Baina gaur, ez da edozein ostiral; urteko azken ostirala da eta dei berezia egiten diete herritarrei kalera ateratzeko.

Urtero bezala, herriko lau

Martutenera joateko, 10:45etan abiatuko dira Zinkoeneatik. 12:30etan iritsiko dira espetxera.

auzotatik zutabeak aterako dira. Antziola, Etxeberri, Zikuñaga eta Portutik, hain zuzen. Iluntzeko 20:00etan jarri dute hitzordua eta 20:20etan Plaza Berrin elkartuko dira denak. Bertatik, Gudarien plazara joango dira denak. Bertan, zerbait berezia egingo dutela jakinarazi dute.

Martuteneko espetxera martxa, bihar

Martuteneko espetxera martxa izango da bihar. Zinkoeneatik 10:45etan aterako dira, Astigarragako poligonotik 11:30etan, eta 12:30etan iritsiko dira espetxera. *Sevilla II* SOS lemapean antolatu dute aurtengo martxa. ||

PORTUKO AUZO ELKARTEA

Masaje tailerra eta ipuin kontalaria, gaur

Gabonetarako ekintza ugari antolatu dituzte Portun. Umeentzako masaje tailerra 10:00etan izango da eta 'Apaxi' ipuin kontalariaren saioa 17:30etan.

ASPERTZEKO tarterik ez da izango Portu auzoan, Gabonetan. Ekintza ugari antolatu dituzte bai ume, bai helduentzat. Gaur bertan, umeei emateko masaje tailerra izango da. 0-2 urteko umeentzako dira masaje hauek. Tailerra 10:00etan izango da. Eta arratsaldean, 17:30etatik aurrera, Apaxi ipuin kontalariaren saioa izango da. Ekintza guztiak auzo elkarte-ko lokalean izango dira.

Datorren astean, beste 3 ekintza

Datorren astean ere beste hainbat ekintza izango dira. Astelehenean, esaterako, tentsioa askatzeko masaje tailerra antolatu dute. Helduentzako da. Arratsaldeko 17:30etan izango da.

Asteartean, berriz, urte bukaera ospatzeko, Santa



Gorka Olazabal ariko da ipuin kontatzen.

Barbaran mendi buelta antolatu dute. Goizeko 10:30etan abiatuko dira.

Eta urtarrilaren 3an, ostiralean, erroskilla tailerra eta merendola egingo dituzte, 16:30etatik aurrera. ||

EGITARAUA

Gaur:
10:00, umeei (0-2 urte) emateko masaje tailerra.
17:30, 'Apaxi' ipuin kontalaria.

Abenduak 30, astelehena:
17:30, tentsioa askatzeko masaje tailerra (helduentzat).

Abenduak 31, asteartea:
10:30, Santa Barbaran mendi buelta urte bukaera ospatzeko.

Urtarrilak 3, ostirala:
16:30, erroskilla tailerra eta merendola.

* Ekintza guztiak, Portuko auzo elkarte-ko lokalean.

❖ ZINEA

'Mount St Elias', eskia muturreraino eramana

Mount St Elias dokumentala izango da ikusgai gaur Biterin, 22:30etan. Munduko 3 mendi eskiatzaile ezagunen erroka baten atzetik doa dokumentala: Alaskako Elias Mendia (5.489 m) eskiatzen jaista. ||

❖ BERRIAK-KRONIKA

Saskien zozketa

Berriak-Kronikako Gabonetako saskien artetik, 2 saskiren irabazleak falta dira eta ez badira gaur eguerdiko 12:00etarako azaltzen, berriz egingo da zozketa. Honakoak dira falta diren saskiak: 3.276 eta 1.613. ||

❖ GABONAK

Kontzertua, txistulari eta abesbatzarekin

Gabonetako kontzertua emango dute gaur Musika Eskolako txistulariek, abesbatzarekin. 18:30etan izango da, Milagrosan. ||

Haurrentzat tailerra

6-11 urteko haurrentzako tailerra izango da gaur udaletxe-ko arkupetan (16:30-18:30). ||

Kirol ludoteka, gaur

Era guztietako kirol jokoak izango dira gaur Kiroldegian, 10:00etatik 13:00etara. ||

❖ ITURRITXO

Haur Txokoa, gaur

Iturritxo elkarteak Haur Txokoa antolatu du gaur (10:30-13:00). Auzo elkartearen lokalean izango da. ||

❖ GAZTE TXOKOA

Trasfesta, gaur

Trasfesta antolatu dute gaur Traspakarren. Musika, mikro irekia, jolasak, bazkaria, ginkanako sari banaketa... izango dira 11:00etatik aurrera. ||



Zorionak Joxe Mari eta Manoli!
Ander, Asier eta Joseba

JOXE MARI


EDARITEGIA

FIDELTASUN TXARTELA

Asteleheneetik ostiralera 10 kafe hartuta, 11garrena doan daukazu. Gainera, zure bonoa betetzear, zozketan parte hartuko duzu:

ASTE BURU BAT
DEBAKO AISIA SPAN

Kale Nagusia, 7
943 55 00 32



ANTZIOLA
OKINDEGIA

ANTZIOLA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

TELEFONAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
 ● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

GURE ESKU DAGO

Gure Esku Dago aurkeztuko dute bihar, erabakitze eskubidearen aldeko dinamika

Herri dinamika honek herri aktibazioa du hasierako helburu, euskaldunen erabakitze eskubidearen alde. Aurkezpena, 11:00etan Biterin.

«NAZIOA gara, erabakitze eskubidea dugu, herritarren garaia da», halaxe dio Gure Esku Dago dinamika. Dinamika hau, bihar aurkeztuko dute Biterin, 11:00etan.

Gure Esku Dago, dinamika herritarra da, erabakitze eskubidearen alde, Euskal Herrian lan egiten ari den dinamika. Hasierako helburua du, herri aktibazioa eta

babesa lortzea, euskaldunen erabakitze eskubidearen alde. «Anitza eta parte hartzailea da, tokian tokiko ekimenei irekia», diote.

«**Erabakitze eskubidea, eskubide demokratiko eta unibertsala da**»

Dinamika martxan jartzearen inguruko arrazoiak ere eman dituzte: «Erabakitze

eskubidea, Euskal Herrian bizi den gatazka politikoaren iturburua da. Aldarrikapen prepolitikoa da, oinarri demokratiko bat sortzearen alde. Erabakitze eskubidearen defentsa, jardute demokratikoa da. Erabakitze eskubidea, nazioarteko legegian jasotako eskubide demokratiko eta unibertsala da». ||

ARRAUNA - BATELEN FEDERAZIO SARIA



Hernaniarrak bikain, aurreneko bi estropadatan. Denboraldia hasi aurretik, Federazio Sariko hiru batel estropada jokatu dituzte Hernaniko arraunlariak. Dagoeneko bi jokatu dituzte eta emaitza bikainak lortu dituzte. Abenduaren 15ean jokatu zuten aurreneko estropada, Elorrabin. Sei klabetako 31 batel aritu ziren lehian eta hernaniarren kasuan, maila bakoitzeko A taldeek emaitza onak lortu zituzten: infantil mutilak aurrenak izan ziren, infantil-kadete neskek bigarrenak eta mutil kadeteak hirugarrenak. Bigarren estropada, berriz, pasa den igandean jokatu zen Tolosan eta berriro ere emaitza ederrak lortu zituzten. Lortutako postu onenak: neska infantil-kadeteak (Hernani B) bigarren, mutil infantilak (Hernani B) bigarren eta mutil kadeteak (Hernani B) hirugarren. Azken estropada igandean jokatu da Elorrabin.

Bestalde, arraun elkarteak Gabonetako saskia zozketatu du eta jakinarazi dute zenbaki saritua dela, Eguberritako loteriarren azken lau zifrekin bat egiten duena. Saria jasotzeko hilabeteko epea dago. ||

Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Denon artean gelditu dugu errauskailua!

Datorren igandean, abenduak 29, hitzordua daukagu Usurbilen: "Nik ere errauskailua gelditu dut!" ekitaldiarekin ospatuko dugu Zubietako errauste plantaren proiektua betirako lurperatzea.

Asko kostatu da erokeria hori gelditzea. Agerian utzi behar izan ditugu bankuek eta multinazionalak jendeari sinetsarazitako gezurrak: errausteak osasunarentzako kalterik ez zuela, merkea zela, garbia zela, alternatiba hoberik ez dagoela... Gezur horiek bata bestearen ondoren erori dira urteotan, era-

kutsiz txarra zela gure eta gure ondorengoen osasunarentzako, garestia, zikina ingurumenarentzako. Eta, batez ere, alternatiba badagoela.

Une honetan Gipuzkoarren ia %20ak birziklatzen du bere hondakin %75 edo %80 edo gehiago. 2014an askoz gehiago izango dira, seguru. Eta 2016an lortuko dugu Gipuzkoa osoan %60 gaintitzea. Baina horretarako herri batzuek joan behar izan dugu aurretik: Usurbil, Hernani, Oartzun, Antzuola, Astigarraga, Zaldibi, Lezo, Oñati... Eztabaida galantak izan ziren Hernanin eta ez dira txikiagoak izan herri horietan, eta zer esanik ez Legazpin, Amasa-Villabo-

nan, Zizurkilen, Ordizian...

Hernaniarrok motiboak daukagu ospatzeko igandean Usurbilen gainerako gipuzkoarrekin batera. Horregatik zaudete denok konbidatuta. Denon artean hondakinetatik abiatuta laguntzen ari gara mundu hobe bat egiten. Oraindik asko daukagu egiteko. Gure ohitura kontsumistekin hondakin gehiegi sortzen dugu eta askotan beste batzuei pasatzen dizkiegu, zabor elektronikoen egiten dugun moduan. Baina urrats handia eman dugu: ospatu dezagun.

Ana Aranburu Zubillaga
(Hernanin Zero Zabor)

EGURALDIA

GAUR Hobera egingo du eguraldiak. Lainoak eta ostateak tartekatuko dira. Dena dela, arratsaldetik aurrera ugari egingo dira lainoak. Hegoaldeko haizeak zakar joko du. Min.8° / Max.18°.

BIHAR Fronte baten eraginez, okerrera egingo du. Goizean, batez ere, zaparradak ugariak izango dira. Haizeak zakar joko du mendebaldetik. Min.6° / Max.12°.

(euskalet)

SASKIBALDIA

Teknikazio saioa eta izarren partidua, gaur

Atzo bezalaxe, gazteentzako saskibaloiko teknikazio saioak izango dira gaur Kiroledegian. Txandaka ariko dira: 09:30-11:00, LHko 5-6 mailako neska eta mutilak, eta DBH 1-2 mailako mutilak; 10:45-12:15, DBH 1-2-3-4 mailako neskek; eta 12:00-13:30, DBH 3-4 mailako mutilak. 18:00etan, berriz, Izarren Arteko Partidua izango da. Aurtengo senior taldeko jokalariek eta jokalari ohiak izango dira aurrez aurre. ||

PALA - EMAKUMEA PILOTARI TXAPELKETA

Txapelaren bat Hernanira, seguru

Emakumea Pilotari Txapelketako finalak jokatu dira gaur Tolosako Beotibar pelotalekuan, 17:00etan hasita. Bost hernaniar izango dira lehian. 1go mailan, 3 hernaniar: M. Goikoetxea-A. Arrieta / M. Mendizabal-E. Gutierrez. Eta 2garren mailan, 2 hernaniar: Arruti-L. Lucas / G. Jauregi - M. Redondo. ||

GOBERNU BATZORDEA

Orona Ideo eraikina erabiltzeko baimen eskaera aztergai, besteak beste

Gobernu Batzordea izango da gaur, 09:15etan Alkatetzan (2. pisua). Besteak beste, aztertuko dute Orona Ideo Innovation City eraikina erabiltzeko baimen eskaera eta Udalaren 2014ko lan egutegiaren aldaketa. ||

BEHATXEROJA TALDEA



'Improvisandola' diskoa, kalean

BeHatxeRoja talde hernaniarrek *Improvisandola* diskoa atera du. Aurkezpena, abenduaren 13an egin zuen Zintzarrin eta taberna jendez gainezka egon zen. Oso giro ona izan zela azaldu dute taldekideek eta eskerrak eman nahi dizkiete kontzertura joan zirenei, Zintzari tabernari eta BeHatxeRoja posible egiten duten guztiei. ||

ASTIGARRAGA

Joste ikastaroa, urtarriletik martxora

Astigarragako kultur etxean joste ikastaroa antolatu dute urtarriletik martxora. Astelehenetan izango da 18:30etatik 20:30etara. Tytti Thusberg diseinatzailearen eskutik izango da. Izena emateko: 943 33 50 64. ||

IRAGARKI MERKEAK

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)